

Fasearen helburuak eta egiten dugun apustuaren definiziotik, nazio eraikuntza estrategian lehentasunak finkatu eta aldaketa prozesuaren urratsak ematea ahalbidetu behar du. Izan ere, nazio eraikuntza ez da ildo isolatu bat, askapen borrokan urrats kualitatiboak emateko zutabe nagusietakoa baizik. Beraz, egin beharreko zehaztapenak lehentasun, proiektu eta dinamika neurgarriak eskaini behar ditu.

#### **6.6. Estrategia integrala.**

Ezker abertzalearen 50 urteetako borroka estrategia politiko militarrean oinarritu da. Estrategia horrek, ibilbide gogor baina oparo horretan fase berriak ireki ditu askapen prozesuan. Fase horien baitan borroka armatuak funtsezko papera bete izan du baldintza berriak sortzeko, mugarri berriak ezartzeko eta askapen borrokan urratsak eman ahal izateko. Eta zer esanik ez, estatuen zapalkuntzari aurre egiteko.

Aurkitzen garen fase politikoan borroka armatuak jokatzeko duen papera ere funtsezkoa da. Borroka armatua, ezker abertzalearen strategiaren aktibo nagusietakoa da. Ezker abertzaleak, datozen denboretan eszenatoki berri bat irekitzeko apustua egiten duelarik, apustu hori bultzatu eta ireki ahal izateko, eraginkorra izango bada, bere strategiaren osotasunetik ekin behar dio helburu horri.

Bestelakoa da, estrategiak egin asmo dugun apustu politikoaren eta kokatzen ditugun gako nagusien mesedetan kokatua egon behar duela argi izatea. Hau da, ezker

abertzalearen estrategia osatzen duten ildoak elkarren osagarri izan behar dira eta beraz, borroka armatuak, ibilbidean (apustuaren bidean) jokatzeko duen papera norabide horretan kokatzen da, gainerako ildoak kokaturik dauden bezalaxe.

Alde batetik, estatuari begirako presioan eta konponbide demokratiko baten beharrezan eta baldintzak indartzeko tresna eraginkor gisa ulertu behar da. Eta bestetik, Euskal Herrian gauzatu beharreko prozesu politikoak eskatzen dituen urrats politikoaren mesedetan bultzatu beharreko ekimen eta inizatibei hertsiki loturik agertzen da. Eta horretarako, ezinbestekoa da prozesu politiko horretan indarrak jarri eta horien arabera urrats politikoak ematea.